
GORA HERRIA !!!
#euskarazbizi
PUZ KORAZUTIK
PORRONTXO JAIAK
IRAILAK 14tik 17ra

HARA NON DATORREN PORRONTXINA... KONTUZ! PORRONTXO GAINEAN DUZU!

Pozik, urduri eta humore ederrean gabiltza ikastolan ikasturte hasera guztietan: PORRONTXOAK DATOZ!

Porrontxoak biziki ospatu izan ditugu AITOR IKASTOLAN: marrazkiak eginez, ikastola apainduz, ahoan eskua sartu eta buruhandietara jolastuz, ostirala jai hartuz, gurasoak jai batzordean parte hartuz... Horrela pasa ditugu urteak eta urteak... Porrontxo eta Porrontxina jaio ziren ia une beretik gure kideak izan ditugu.

Baina badakizue zer? Aitor ikastola Porrontxo eta Porrontxina ere baino zaharragoa dela, eta aurten 50 urte betetzera doala. A ZER URTE PILA!

Urte pila Egian euskara eta euskal kultura zabaldu asmoz, Aitor ikastola egiatar multzo batek sortu zuela, egiatarrek sortua, egiatarrontzat. Eta horrela jarraitu du sutsuki urte hauetan guztietan: Porrontxoak Porrontxo eta Porrontxinarik gabe bezala, zer litzateke Aitor ikastola Egiarik gabe, baina zer litzateke Egia Aitor ikastolarik gabe?

Iritsi dira
Porrontxo jaiak
Bai direla alaiak

Neska mutiko
Egiatarrak
Benetan bai jatorrak

Egiako kaleetan
Denok gabiltza festetan
Goiz arratsetan gauetan
Dibertituaz benetan

Behetikan gora
Goitikan behera
Denok ibiltzen gara

Txiki ta handi
Handi ta txiki
Guztiok bai ederki

Korrika buruhandietan
Gainera denok txantxetan
Pozik gabiltza denetan
Gu beti porrontxoetan

50 urteurrena
AIK
AITOR IKASTOLA
1967 • 2017

ZORIONAK AITOR IKASTOLA!
GORA EGIA! GORA PORRONTXOAK!

RINOPLASTIA
PERAZIOA

Azkenean! Azkenean, bai, iristear dira Egiatarrok iaztik hain gogotsu espero genituen Porrontxo jaiak. Eta, hementxe gabiltza, urteko parentesi berezi honi ongi etorria emateko hitz batzuk idatzi nahian, gorputzetik bizi dugun hori nola papereratu ezin asmatu.

Izan ere, egun berezi hauetan lehendabizikoz gerturatuko denari, nola azaldu emozioak direla igoeraren aurreko minutuetan beste ezerk baino lehen mozkortzen gaituztenak. Edo, urte osoan zehar aldi bakanetan elkartu ohi garen lagunak ere, blusa beraren pean elkartzen garela eta koadrilen afarian konpartitzen ditugula gure bizipenak. Hitz lauz azaltzerik ez dugu agian, baina badugu zer bizi.

Bestalde, erraz azal genezake, deskribaezinak diren une guzti horiek bizi ditzagun, auzotar batzuek euren sudurretan zein karga izan duten. Horregatik, pisuaren pisuz hautsi baino lehen, porrontxo horiek mediku azterketa sakon baten beharra izan dute. Hala da, bai, egoera kritikoan aurkitu dira, baina zorionez Rinoplastiak bere emaitzak eman ditu eta indartuta, biziberrituta datoz. Ezinezkoa zela uste bagenuen, Porrontxo jaiak parte hartzaileago, auzotarrago, are "gu"ago izango diren ilusioz aurkitzen gara.

Horretarako zer egingo dugun? Noski, koadrilek jaien oinarria izaten jarraituko dute. Baina kontuz! koadrila izateko urtero-urtero eman beharko dugu eta izena. Zenbat garen, zer egiteko prest gauden... Gainera, txandaka-txandaka koadrila bakoitzak bere partaide bat jarriko du urte betez jai batzordeko kide izan dadin. Beraz, koadrilen inplikazioa handiagoa izango denez, beren eskubideak ere izango dituzte: deskontu bereziak, batzarretan parte hartzeagatik zozketa freskagarriak, eta askoz gehiago! Gainera, inor parte hartzeko gogoz geratzerik nahi ez dugunez, koadrilarik gabeko auzotarrek ere koadrilen batzarretan parte hartzeko aukera izango dute eta gu guztion sudurrak bereziki luzatuko ditugu oraindik gutar sentitzen ez direnengana iristeko: koadrila berriek berrituko baikaituzte gu.

Guzti hau eta are gehiago eman du operazioak, baina xehetasun handitan sartzerik ez eta... jakin-minez geratu bazarete, a zer poza gurea! Rinoplastiaren mediku-txostenean dituzue emaitza guzti-guztiak.

Besterik gabe, gozatu jaiak eta zuok ere izan zaitezte biziberritze honen konplize, **bai horixe!**

RINOPLASTIAKO DOKTOREAK

PD: Ez larritu txupina lehertzen den unean sudur puntan orbain bat ateratzen bazaizue.

PORRONTX

egiako

Irailak

11 ASTELEHENA
Ajia arintzeko... ur jolasak!

16:00 Haurrentzako APAR FESTA, GOMING ETA PUZGARRIAK **Navar Ekoizpenak**-en eskutik Plaza Haundin. Donostia Kultura.

17:00 TXIRRISTRA ERRALDOIA haurrentzat Plaza Haundiren ondoko aldapan.

12 ASTEARTEA
Sudur finen eguna!

17:00 Aldakoneako Egoitzako TRIKITILARIAK.

17:00 Haurrentzako ARTE TAILERRA eta ERAKUSKETA **Arratibel Estudioa**ren eskutik (pintzelak norberak ekarri). Plaza Haundin.

18:00 TXOKOLATE JATEA Plaza Haundin.

18:30 Haurrentzako TALO TAILERRA Plaza Haundin trikitilariek alaituta.

19:00 "Mila pintxo mila kolore", Porrontxoetako IX. PINTXO LEHIAKETA eta dastaketa. Plaza Haundin.

20:00 Prestatu gerriak! Joxeporen omenaldirako dantzaldi jendetsuarentzako mini entsegua, eta gero... Plaza Haundin.

20:15 ERASO SEXISTEN AURKAKO ARGAZKI HERRIKOIA, Egian ere eraso sexistarik ez dugulako nahi! Plaza Haundin.

13 ASTEAZKENA
Kultour egian barrena!

17:00 Haur eta gazteentzako JOLASAK Plaza Haundin, trikitilariek alaituta.

18:00 KOHETE TAILERRA Plaza Haundin, **Ongi etorri** taldearen eskutik.

18:30 MASKARA TAILERRA **El Estudio** arte akademiaren eskutik Plaza Haundin.

14 OSTEGUNA
Gora gu ta gutarraaaak!!

17:00 BURUHAUNDI ETA ERRALDOIAK, **Lagunak** txarangak gidatuta.

17:30 HAURREN JAITSIERA Porrontxo, Porrontxa eta Buruhaundiekin, **Lagunak** txarangak gidatuta Karmengo Aman.

18:00 Haurrentzako TXAPELA BURUAN ETA DANTZA MUNDUAN **Eidabe**-ren eskutik Plaza Haundin. Donostia Kultura.

19:00 Gazteak eta ez hain gazteak... KARROZAK TUNEATZERA Txondorrapeko plazara (gasofazko motorra, turbo edo antzeko tramankuluak debekatuak daude).

20:00 PREGOIA ETA TXUPINAZOA **Aitor Ikastola**ren eskutik, 50. urteurrenean, Txondorrapeko plazan.

20:01 KOADRILEN JEITSIERA MUSIKATUA **La Konga Txoronga**-ren eskutik, azkena ipurdi gizena! Porrontxo eta Porrontxarekin batera noski!

20:30 **Lagunak** TXARANGA auzoan zehar.

22:00 KARAOKEA Plaza Berrin.

22:00 MUSIKA EMANALDIA Plaza Haundin, **Gozo Gozo** taldearekin.

22:30 Ohitura onak ez galtzeko **Baldarrak** TXARANGA auzoan zehar.

OBREK! IBILBIDEETAN ALDAKETAK ERAGIN DITZAKETE

¡LAS OBRAS! PUEDEN PRODUCIR CAMBIOS EN LOS RECORRIDOS

info+ www.porrontxojaiak.org

15 OSTIRALA
Haur, gazte ta beteranoen eguna!

08:00 DIANA dultzaineroekin auzoan zehar.

11:30 HAURREN ENTZIERROA Tejeria kalean.

12:00 HAMABITAKOA Plaza Haundin.

12:00 **10 urte** IKUSKIZUNA **Tomaxenabenturak**-en eskutik Plaza Haundin. Donostia Kultura.

17:00 BURUHANDI ETA ERRALDOIAK, Porrontxo eta Porrontxa eta **KilkerBand** txaranga auzoan zehar.

17:00 AMONAREN BELARRIAK ENTZUNDAKO KONTU TXIKI ETA HANDIAK **Kontukanto**ien eskutik, Tabakalerako 4. solairuan.

18:00 **Antxeta-TtanTtakunen** eskutik HAUR JOLASAK Plaza Haundin.

20:00 AFARI-MERIENDA haurrentzat Plaza Haundin (pilotalekuaren ondoan). Txartelak Arkatza liburudendan.

20:30 DANTZALDI SORPRESA haurrentzat **Egihaurgunea**-ren eskutik Plaza Haundin (pilotalekuaren ondoan).

20:30 EGIAKO I. MENDI BIZIKLETA LASTERKETA URBANOA. Irteera eta helmuga Tabakaleran. **Gipuzkoako Mendi Bizikleta Elkartea**ren eskutik.

21:00 BETERANOEN AFARIA Tejerian.

21:00 KONTZERTUA Cactus Tabernan, **Lasombradelflaco**.

21:30 ZEZEN SUZKOA Tejeria kalean Ostotsatik behera.

21:30 EUSKAL KANTAK **Iñaki Revuelta, Jesus Etxebeste** eta **Maite Alonso**ren eskutik Fausto tabernan.

22:30 **Mr Javitin** RAP Fausto tabernan.

22:30 DANTZALDIA Plaza Haundin: **Ezten Giro + Zezenaren Taldea**. Iparraldetik datorren Folk Balkanikodun enbata musikatua, ez huts egin, latza izango da eta.

23:00 GUATEKEA Tejeria Kalean.

gazte (eta puretilen) eguna

14:00 GAZTE HERRI BAZKARIA Plaza Berrin (karpan). Tiketak Kata eta Koxkon salgai.

17:00 GAZTE JOKUAK auzoan zehar.

19:30 Intxaurrondokoei ONGI ETORRIA, aurten Polloen! **Elektrotxaranga**k alaituta.

22:00 GAUEKO KONTZERTUAK: **Kalera + Drumcopters + Righteous Way Sound.**

16 LARUNBATA
Elkartasun eguna

08:00 **Lagunak** TXARANGA auzoan zehar.

11:00 MUNDUKO JOLASAK **Jokulandia**-ren eskutik Gladys Enean eta ondoren TXOKOLATE JATEA.

11:00 PIZZAK EGITEKO TAILERRA haurrentzat **Taba-Arizmendi** pizzaetxearen eskutik Tabakaleran (Turnoak egongo dira, Arkatza liburudendan apuntatu!).

11:00 JOTAK Plaza Haundin. Nafarroatik zuzenean **Voces Riveras**. Gora la Nabarra maritimaaa!

12:30 DANTZA KALE POTE **Kuadrila beteranoe**n eskutik auzoan zehar.

14:30 DENAK ETXERA BAZKARI HERRIKOIA Plaza Haundin.

17:00 **La Jodedera** Plaza Haundin.

17:00 BURUHANDI ETA ERRALDOIAK **Kaña2kaña** trikitilariek alaituta.

17:00 MUS TXAPELKETA Agreda Tabernan.

17:00 ESKUBALOI TXAPELKETA kiroldegian **Egia Eskubaloia**ren eskutik.

17:00 PATINETE/SKATE RAMPAK Maria Reina Ikastolan, **Gaztelekua**ren eskutik.

2017

INFO+ www.porrontxojaiak.org · porrontxojaiak@porrontxojaiak.org

17:05 **Haurtxokoa**ren eskutik TALLER EZBERDINAK Gladys-Enean.

17:45 JOXEPORI DANTZALDI MASIBO IREKIA, anima zaitezte! Plaza Haundin.

18:00 "MY GOT" TXAPELKETA Maria Reinan, **Gaztelekua**ren eskutik.

18:00 GAZTE BRINDISA karpan.

18:00 Kuadrilen arteko BERTSO-GINKANA-POTEOA.

18:00 ZUMBA IKASTAROA Maria Reinan, **Gaztelekua**ren eskutik.

18:30 Haur eta gazteentzako BIZIKLETA GINKANA Tabakaleran **Gipuzkoako Mendi Bizikleta Elkartea**ren eskutik. Ekarri txirrinda eta kaskoa.

18:30 **Musika Eskola**ko TRIKITILARIEN EMANALDIA Plaza Gorrin.

18:30 PALA FINALAK frontoian trikitilariek alaituta.

19:00 HAZIAK LANDATU EKIMENA Maria Reinan, **Gaztelekua**ren eskutik.

20:00 **Trebeska Dantza Taldea**ren eskutik EMANALDIA Plaza Haundin.

20:00 KONTZERTUAK Cactus tabernan: **Artitris + Holy Nuns**.

20:00 Porrontxo Jaietako XX. HERRI KROSA.

21:00 ZEZEN SUZKOA Tejeria kalean, Ostotsatik behera.

21:00 EL HOMBRE ORKESTA Ametzagainako 60 zenbakian.

21:30 KOADRILEN AFARIA Tejeria kalean.

22:00 **Iraunkorrak** TXARANGA auzoan zehar.

22:00 MUSIKA EMANALDIA **Laiotz** taldearekin Plaza Haundin.

22:00 **Odolaren mintzoa** taldearekin REGGAE-SKA GAUA Plaza Berrin.

23:00 DJ **Telmo Trenor** Agreda tabernan.

23:00 80. HAMARKADAKO FESTA Fausto tabernan.

00:30 KALEJIRA Porrontxo, Porrontxa eta zanpanzarrekin.

01:00 ROCK KAM BROOM auzoan zehar. Rock bertsio ibiltariak.

01.00 Plaza Berriko KONTZERTUAK. **La Basu**ren eskutik RAP gaua. Eta gero... DJ **Keko**-k gaua astinduko du bere musikarekin.

01:00 **Baldarrak** TXARANGA auzoan zehar.

17 IGANDEA
Euskal jaia

07:00 TXARANGA HERRIKOIA **KilkerBand**-ekin batera gaupaseroen martxa!

08:00 GOSARIA Plaza Haundin. Menua: OILASKO ERREA.

11:00 **Egia Alai** taldearen KALEJIRA auzoan zehar.

11:00 PILOTA FINALAK frontoian trikitilariek alaituta.

12:00 SAGARDO DASTAKETA trikitilariek alaituta Plaza Haundin.

14:30 BAZKARI HERRIKOIA Plaza Haundin **Donosti-gain**, **Ur-zaleak** eta **Arrano** elkarteek antolatuta.

17:00 HERRI KIROLAK GURE ESKU Plaza Haundin.

17:30 KONTZERTUAK Plaza Berrin: **Liher + Txemak**.

19:00 SARDINA JATEA Plaza Haundin **Txaro arraindegia**ren eskutik.

19:00 ERROMERIA **Iratzar** taldearekin, Plaza Haundin.

20:00 **KilkerBand** TXARANGA auzoan zehar.

21:00 KALEJIRA auzoan zehar Porrontxo eta Porrontxarekin **KirkerBand** txarangak alaituta.

22:00 AZKEN TRAKA **The Last One.**

00:00 GUI AR DE GUORLD, **Ostotsa** tabernan.

Libretatxoa esku artean
dena zenuen kontrolpean.
Non egongo ote da Joxepo?
Baztarren ez bada lokalean.

Beti eskura, beti prest.
Porrontxotan etxea zapaltzen al zenuen?
Lagun, laguntzaile, kontaktu
guztiak ondo fitxatuta zenituen.

Zurekin asko ikasi dugu,
ez dugu ahazten
eta luzaroan jarraituko dugu
Porrontxoak por narices ospatzen!

ESKERRIK ASKO JOXEPO!

Iraganeko, gaurko eta etorkizuneko
jai batzordea

ESKERRIK ASKO
JOXEPO!

PORRONTXO
JAIAK 2017
EGIA
IRAILAK 9 - 17

PORRONTXO JAIAK 2017 - IRAILAK 9-17

EGIA IRAILAK 9 - 17
PORRONTXO JAIAK 2017

Porrontxo Jaiak
2017
Irailak 9-17
EGIA

PORRONTXO JAIAK 2017
EGIA
IRAILAK 9-17

PORRONTXO
JAIAK
2017
EGIA
IRAILAK 9-17

PORRONTXO
JAIAK 2017
IRAILAK 9-17
EGIA

PORRONTXO JAIAK
2017
Egia
irailak 9-17

PORRONTXO
JAIAK
»Irailak 9-17«
2017
EGIA